

NIINOONIINOONIINOO. Sirenen hotsak. Porturantz doaz anbulantzia batzuk. Badirudi zerbait larria gertatu dela. Egunkariak eta irratiek esango dute bihar.

10 egun lehenago ...

Kaixo! Nire izena Peio da. Pasaiaiko portuan lan egiten dut garabietako kontrolatzaile bezala. Nire lana portuko garabiak behar bezala aritzen direla eta kargamentu egokiak garraiatzen dituztela kontrolatzea da. Egunean zehar nahiko lanpetuta egon ohi naiz. Portuko mutur batetik bestera dauden garabien arduraduna naiz. Bizikletaz mugitzen naiz, normalean distantzia motzak dira eta ez du pena merezi kotxea hartzea horretarako, gehiegi kutsatzen du eta.

Milaka itsasontzi ikusi ditut bizitza osoan zehar: erraldoiak, txikiak, luxuzkoak, erdi-suntsituak... Hobeto gogoratzen ditudanak Kubako bi itsasontzi horiek dira, portuan gelditu zirenak abandonatuta. Ia urte oso bat egon ziren han, norbaitek lagunduko zien itxaropenarekin. Marinelak tipo atseginak ziren, benetan. Gabonetan, jendeak turroiak eta gabonetako beste produktu batzuk eraman zieten. Azkenean, tripulazioa errepatriatu zuten, baina itsasontziak bertan gelditu ziren bolada bat gehiago.

Behin etorri zitzaigun itsasontzi handi bat Turkiatik. Berez, itsasontzian 13 pertsona eta txatarra tona batzuk zetozen. Gure sorpresa izan zen ontziaren barruan 30 pertsona zeudela. Inmigrante ilegalak ziren. Ihes egiten saiatu ziren, baina Guardia Zibilek segituan atxilotu egin zituzten. Guztiak gizonak ziren, eta itxura nahiko hunkigarria zeukaten: goseak zeuden, arropa zikin eta zartatuak zeramaten eta aurpegi tristeak zituzten, haien etxea behartuta utzi behar izan zuten bezala.

Hamaika abentura bizi izan ditut nire portu maitean, baina hau laster bukatu egingo da. Bi aste barru erretiroa emango didate eta bizitza lasai bukatu egingo dut nire emaztearen ondoan.

“Azken orduko berria: Pasaiaiko portuko autoritateak esan duenez, langile bat zendu da garabi batetik erori egin denean. Bere izena Peio zen eta 65 urte zituen. Lan-istripu asko bezala, ahanztean geldituko da...”

Iván MATELLANES PASTORIZA

3º E.S.O. LA ANUNCIATA IKASTETXEA